

KIROLA AXULAR LIZEOAN

KIROLA, PERTSONAREN garapenerako ezinbesteko tresna

Axular Lizeoan kirola gure ikasleen heziketarako funtsezko pieza gisa ulertzen dugu. Kirola egiteak mugimen-trebetasunak eta ongizate fisikoa garatzen laguntzeaz gain, eragin positiboa du ikasleen osasun mentalean eta emozionalean.

Kirolarekin errespetua, talde-lana, tolerantzia edo konpromisoa bezalako balioak lantzen dira, eta gure ikasleen etorkizunerako beharrezkoak izango diren gaitasunak garatzen dira, hala nola diziplina, ahalegina edo autokonfiantza.

KIROL ESKAINTZA AXULAR LIZEOAN

ESKOLA KIROLA (MULTIKIROLA)- LH3tik LH6ra

- Zer da?
 - Foru Aldundiak arauturiko **jarduera multidisziplinarra**.
 - Eskola Kirolaren helburua **ikasle guztiak kirola egiten hastea** da. Kirol prestakuntza epe luzeko prozesu gisa lantzen da ikasle guztiei **kirol anitz probatzeko aukera** eskainiz.
 - **Ikastola eta ikastetxeen bitartez** hartzen da parte.
 - Kirol Eskoletan parte hartzeko Eskola Kirola egitea **derrigorrezkoa** da.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko "Eskola Kirola Gipuzkoan" dokumentua [hemen](#) irakur dezakezue.

- ESKOLA KIROLA AXULAR LIZEOAN

	LH3 (Benjaminak)	LH4 (Benjaminak)	LH5 (Alebinak)	LH6 (Alebinak)
NOIZ	Arratsaldeetan (2024-2025 ikasturtean Asteazken eta ostiraletan 16:30-17:30)	Arratsaldeetan (2024-2025 ikasturtean astearte eta ostegunetan 16:30-17:30)	Eguerdietan (2024-2025 ikasturtean astelehen eta asteazkenetan)	Eguerdietan (2024-2025 ikasturtean astelehen eta asteazkenetan)
NON	IKASTOLAN	IKASTOLAN	UDAL INSTALAKUNTZETAN	UDAL INSTALAKUNTZETAN
ASTEBURUAK	JARDUNALDIAK LARUNBAT GOIZETAN	JARDUNALDIAK LARUNBAT GOIZETAN	JARDUNALDIAK LARUNBAT GOIZETAN	JARDUNALDIAK LARUNBAT GOIZETAN
ZER?	Entrenamenduak: FUTBOLA eta SASKIBALOIA Jardunaldiak: FUTBOLA, SASKIBALOIA, MAHAI TENISA, ERRUGBIA, WATERPOLO, SINKRONIZATUA...	Entrenamenduak: FUTBOLA eta SASKIBALOIA Jardunaldiak: FUTBOLA, SASKIBALOIA, MAHAI TENISA, ERRUGBIA, WATERPOLO, SINKRONIZATUA...	FUTBOLA eta SASKIBALOIA	FUTBOLA eta SASKIBALOIA

KIROL FEDERATUA ETA SASKI AXULAR ESKOLA

Eskola Kirola amaitu ondoren, ikastolak Infantil, Kadete, Jubenil eta Senior kategorietan saskibaloia praktikatzen jarraitzeko aukera eskaintzen die gure ikasleei. Gainera, eta Eskola-Kirolarekin bateragarria, gure ikasleek Saski Axular eskolan ere parte har dezakete.

Ikastolak dituen espazio eta instalazioek saskibaloia garapena ahalbidetzen dute eta gure ikasleak inguruko klubetara bideratzen ditugu beste kirol batzuk egiteko. Futbol zelai propioirik ez dugunez, gaur egun bi futbol talde baino ez ditugu senior mailan.